ENPRESEN KUDEAKETA

SISTEMEN GARAPEN ETA HOBEKUNTZARAKO ZERBITZUAK

HOBEKIN

Enpresa Kudeaketa Sistemen Garapena eta Hobekuntza Zerbitzuak eskaintzen ditugun erakunde bat gara. Enpresei zuzenduta, beraien beharrak asetzeko modu koordinatuan, baliabideak eta kosteak kudeatuz, harreman estua mantenduz eta euren helburuak lortzeko lagunduz.

Profesional kualifikatuak eta adituak gara, eta datu pertsonal babesean aitzindari den enpresarekin lankidetzan jarduten gara, SEGURdades (Abokatu bulegoa).

Gure izateko arrazoia: **SISTEMEN KUDEAKETARAKO ZERBITZU OSOA ESKAINTZEA**, kudeaketa arloko antolakuntza premiei erantzun jarraitua emango dien **ENPRESA BAKARRAREN BIDEZ:**

ZERBITZUAK

1 ARAUDI ALORREKO AHOLKULARITZA

Enpresak kudeaketa sistema eraginkorra garatu behar du, Nazioarteko Araudi aurkako Ziurtagiria edo Zertifikazioa barne, Kalitatea (ISO 9001), Ingurumena (ISO 14001), Energia (ISO 50001) eta Laneko Segurtasun eta Osasun arloetan (ISO 45001), bertako prozesuen premietara egokitua, eta sistematikoki erabili behar du, erakundearen jarduerari eusteko eta etengabe hobetzeko. (+Ikuskaritzak, Sistemaren arduraduna…).

2 ENPRESAREN HOBEKUNTZA ETA KUDEAKETA

Lehiakideen aldean zure enpresa bereizteko funtzioa betetzea eta Enpresaren kudeaketa nagusia hobetzea, horrela, errendimendua eta onura handituz. (Kudeaketa Aurreratua Ereduaren Diagnosia eta Garapena, Estrategia, Prozesuak, Pertsonak, 5S Programa, Aginte koadro Integrala, Enpresen Gizarte Erantzukizuna…).

3 INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA ETA DATUEN BABESA

Enpresaren funtzionamendua langileen, bezeroen eta hornitzaileen datu pertsonalak babesteko indarreko legeriari egokitzea, eta Sistema Informatikoaren Segurtasuna kudeatuz, bertan dagoen informazio garrantzitsua bermatzea:

- 2016/679 DBO (EB)
- 3/2018 LO
- 34/2002 IGMEZ

HOBEKIN

ENPRESEN KUDEAKETA-SISTEMEN GARAPEN
ETA HOBEKUNTZARAKO ZERBITZUAK

ARAUDI ALORREKO AHOLKULARITZA

Zure enpresaren Kudeaketa Sistema Nazioarteko Arau batek ziurtatua denean, bezeroaren eta legearen eskakizunak betetzen dituzten produktu edo zerbitzuak eskaintzeko duzun gaitasuna erakusten du. Horretarako, enpresak kudeaketa sistema eraginkorra garatu behar du, bertako prozesuen premietara egokitua, eta sistematikoki erabili behar du, erakundearen jarduerari eusteko eta etengabe hobetzeko.
Gure esperientzia luzeari esker, hainbat araudiri buruzko irtenbideak eskain ditzakegu profesionaltasun osoarekin eta gure bezeroarekiko erantzukizun guztiarekin, Kalitatea, Ingurumena, Energia eta Laneko Segurtasun eta Osasun arloetan.

KALITATEA: ISO 9001

Kalitatea ez da moda bat, nazioan eta nazioartean aintzatetsi eta onartuta dagoen premia baizik. Kalitateak ez du kostua eragiten, itzulera azkarreko inbertsioa da, eta bezeroen nahigabea saihesteaz gain, zarrastelkeria desagerrarazten du. Kalitatea ez da arazo bat, eguneroko gorabeherei irtenbidea ematen dien tresna baizik. Kalitatea ez da kontrola, aitzindarien bultzadaren eraginez denak partaide egiten dituen lan egiteko modu naturala baizik.

INGURUMENA: ISO 14001 ETA ENERGIA: ISO 50001

Gure ingurua babesteko helburu garrantzitsua lortzeko modu egokia da erakundeetan kudeaketarako sistematika batzuk ezartzea ingurumenari dagozkion betekizun eta gomendioak betetzen laguntzeko.

SEGURTASUNA ETA LANEKO OSASUNA: ISO 45001

Prebentzio-kudeaketarako sistema bat erabiltzeak enpresak duen erantzukizuna langileei, bezeroei eta gizarteari erakusteko balio du, eta laneko istripuak murrizteko eta segurtasuna handitzeko ahal den guztia egiten ari dela adierazteko.



HOBEKIN

ENPRESEN KUDEAKETA-SISTEMEN GARAPEN ETA HOBEKUNTZARAKO ZERBITZUAK

ENPRESAREN HOBEKUNTZA ETA KUDEAKETA

Enpresa-jarduerak pertsonen bidez erakundearen lehiakortasuna hobetzea du helburu. Kudeaketa bikainaren xedea da zer eginak hobeto egitea, eta horretarako, beharrezkoa da kudeaketaren arrakasta edo emaitza hobeak lortzen laguntzen duten faktoreak identifikatzea.
Kudeaketaren funtsezko helburua produktibitatea, jasangarritasuna eta lehiakortasuna hobetzea da, epe luzera enpresaren bideragarritasuna bermatuta.
Jarduera nagusiak:

KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA:

Enpresaren lehiakortasuna egituratzeko oinarrizko 6 elementuak garatuta Kudeaketa Eredua ezartzea; eta horrek honako hau eragingo du:

- Pertsonengan proiektu partekatu baten kide direlako sentipena piztea.
- Enpresa bezeroengana bideratzea, balio bereizgarria erantsita.
- Enpresaren eremu guztietan berrikuntza aplikatzea.
- Gizartearekiko konpromisoa bultzatzea, bera delako lehiakortasun-gaitasun nabarmenen hornitzaile garrantzitsua delako.
- Epe luzerako ikuspegia sortzea, ondo definituriko estrategia baten bidez gauzatuko dena.
- Interes-taldeentzat emaitza asebetegarriak lortzea, modu jasangarri eta orekatuan.

KUDEAKETA SISTEMAREN ARDURADUNA...

Kalitatea, eta/edo Ingurumena eta/edo enpresaren Segurtasuna eta Laneko Osasuna.

KANPOKO AUDITOREA...

Eta Enpresen Barne Auditoriak eta Hornitzaileen Kanpo Auditoriak egitea, independentziarekin, osotasunarekin, konfidentzialtasunarekin eta objektibotasunarekin.

ETENGABEKO HOBEKUNTZA:

- Gogoeta estrategikoa eta aginte-koadro integrala.
- Prozesuen bidezko kudeaketa.
- Pertsonen kudeaketa.
- “5S” inplementazioa: Antolakuntza, Ordena eta Garbitasuna.
- Kudeaketa Sistemen integrazioa: Kalitatea, Ingurumena eta Laneko Segurtasuna eta Osasuna. Baliabideen, kostuen eta ahaleginen optimizazioa.

HOBEKIN

ENPRESEN KUDEAKETA-SISTEMEN GARAPEN ETA HOBEKUNTZARAKO ZERBITZUAK

INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA ETA DATUEN BABESA

KALITATEZKO ZERBITZU JURIDIKOA

GURE XEDE NAGUSIA KALITATEZKO ZERBITZU JURIDIKOA BERMATZEA DA, KANPOKO AHOLKULARITZA GISA EDO GURE BEZEROEN SAIL JURIDIKOA INDARTZEKO..

IGMEZ, DBEO eta DPBEDBLO: datuak babes- teari, Interneti, merkataritza elektronikoari eta Europako erregelamenduari buruzko araudien inguruko guztia.

- IGMEZ. Interneti eta merkataritza elektronikoari buruzko legea betetzeko ekintza guztiak egiten dira: Webgunearen eduki juridikoa berrikusi, Pribatutasun-politika osatu, Lege-oharra osatu.
- DATUAK BABESTEA - DBEO-EB. Enpresa pribatu eta Administrazio Publikoari berariazko prestakuntza ematendiogu sail/aholkularitzaren eskakizunen arabera eta bezeroari 365/24 aholkularitza-zerbitzua edota aholkularitza espezializatua eskaintzen diogu.
- DATUEN BABESERAKO ORDEZKARIA. Kontrol Agintaritzari DBOren izendapena jakinaraztea eta DBEOren 39. artikuluan xedatzen diren zereginak gauzatzea.

SEGURTASUN ESKEMA NAZIONALA-SEN: Administrazio Publikoaren baliabide elektronikoen informazio-sistemen segurtasun politikak ikuskatzea eta ezartzea.

ERANTZUKIZUN PENAL KORPORATIBOA-COMPLIANCE: 1/2015 Lege Organikoaren bidez Zigor Kodea aldatu zenetik, edozein pertsona juridiko, edozein tamaina eta dimentsio duelarik ere, bere ekintzen edo kideen omisioen erantzule penala izan daiteke. Delituaren Prebentziorako Plana ezartzea ezinbestekoa da, legez kontrakoa egin baino lehen.

GARDENTASUNARI, INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO BIDEARI ETA GOBERNU ONARI BURUZKO LEGEA: Erakundeak gardentasunari buruzko araudia behar bezala garatu eta lortzeko laguntza osoa eduki ahal izateko.

KZTFP: Kapitalak Zuritzea eta Terrorismoa Finantzaketa Prebenitzeari buruzko Legea derrigorrez bete behar duten kasuetarako.

DRILL, CHEMIST & FIRA-DC&F: P. SEGURdades enpresak garatuta informazio magnetikoa suntsitzeko protokoloa da. Suntsitze-egiaztagiria eskaintzen du, eta kostu ekonomiko baxua du, edozein enpresak ordaintzeko modukoa.

SEGURdades

Consultores en protección de datos personales

"Zure enpresari hobekuntza ekarriko diogu,
zure lehiakideengandik bereiz zaitezen"

EKIN HOBEKUNTZAN!

673 521 231

EIBAR: Txikito kalea 8

ARRASATE: Garaia Parke Teknologikoa. Goiru 1

---

info@hobekin.eus / hobekin.eus

jercilla@segurdades.com / segurdades.com

HOBEKIN

SEGURdades